

- **Kultura:** Herri Dantzak ikasteko eskolak Urratsekoen eskutik
- **Entzutekuak:** Memoria Historikoa berreskuratzeko taldeari elkarrizketa

soraluzeko  
hamabostekaria **208.** alea  
2009ko urriaren 30ean



# PIL-PILEAN



**JESUSA MAIZTEGI**  
**Arian-arian, artiletik haria**





MAKINA BEREZIAK  
LERRO AUTOMATIKOAK  
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA

SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.  
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE



## Fresatzeko Teknologia



Mahai Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua  
Mahai Finkoarekin



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



SORALUCE, S.Coop.  
Osintxu Auzoa  
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel. +34 943 76 90 76  
Fax. +34 943 76 51 28  
E-mail: [soraluce@soraluce.com](mailto:soraluce@soraluce.com)  
[www.soraluce.com](http://www.soraluce.com)





LOREA DE CASTRO



AINARA OSORO

## CARPE DIEM

**D**enboran eta erlojuan menpe dagan gizarbate baten bizi gara, Ainara. Beti pira-xaka, askotan rutinatan hatzaparretan jausten lagatzen dogu gure burua; baina bestalde, gutako danok entzun eta errepikatu dogu milioi bat aldiz “*carpe diem*”, aprobetxatu momentua. Ez al dira kontrakuak?

Zenbat aldiz laga dotsagu gustoko zeozer egittiari ‘*hurren go baten*’ esanaz? Iraganan eta etorkizun gaitibu bihurtu gara eta ez dotsagu orainari, gaurko egunari, merezi daben garrantzia guztixa emoten. Ondo dakigu 24 ordu nahikua dirala pertsona edo familixa baten mundua hankaz gora jartzeko eta danori emoten dosku bildurra pentsatziak posible dala biharko egunik ez izatia. Horren aurrian reaktionau egin bihar da, baina ezin gara be bildurrez bizi, azkenian bildurrak gizakixa paralizatzen dabelako eta bildur hori bera da rutinatan amildegira botatzen gaittuana. As-telehenetik barixakura robot batzuk gara, lanetik etxera, asteburua noiz helduko zain. Dinamika hori arriskutsua da, konturatu orduko egunak, astiak, hilabetiak eta urtiak pasatu leizkelako!

Ainara, zuk dinozun moduan, egin edo ez egin artian, beti egin! Eta nere aitxixak emoten zoskun gomendixua jarraituta, ez damutu egindakuaz, egin bare lagatokuaz bakarrik! 🌀

“

**Ez damutu egindakuaz, egin bare lagatokuaz bakarrik**

Lorea de Castro

**Dana aurre-ikusitako eta planeatzeko biharra sentitzen dogu**

Ainara Osoro

”

**E**gunerokotasunetik urteteko deia ekarri dostazu, Lorea, eta danok egitten dogu amets horrekin, baina pausua eman? Hori beste gauza bat da. Aldaketiak, ziurgabetasuna sortzen dosku eta kikildu egitten gara.

Ez genduke hain erraz amore emon biharko, bizitzak emoten doskun aukeren aurrian ilusiñuakin jokatu biharko genduke, porrot egitteko bildurrik bare, izan be, zeinek sartu dosku beldur hori? Suposatzen da, egun, inoiz baino gehixago ziurtasun zientifikuetan bizi garala, bizitza guztiz antolatuta daukagula eta ixa edozein ezusteko konpontzeko gai garala. Hala da be, adituen arabera, gero eta estresatuago eta larrixago bizi gara.

Dana aurreikusitako eta planeatzeko biharra sentitzen dogu.

Aldiz, zuk diñozun moduan, bapartian, plangintza hori pikutara eruan ahal daben edozer gertatu leike. Horregaittik, egonkortasun hori ez dogu serixoegi hartu bihar, pentsatzen dogu segurtasuna emoten doskula, baina gure desiretatik ezkutatzeko harresi bat da. Eta orduan zetarako? Hainbeste aurreikusitako, aurrez ikusitako bizitza bat bizitzera eruaten gaittu eta behin bakarrik bizi danez, norberak bere modura bizi biharko leuke. Ze Lennonek esan zeban moduan, bizitza planak egitten gauzen bittartian pasatzen da. 🌀

Goguan hartzeko

**Ze barri da munduan? - Bakotxa bizi dala bere moduan**  
Gotzon Garate, euskal atsotitza



## GUTUNAK

### Kiroldegiko pleguen inguruan

Irailaren 28ko Gobernu Batzordean kiroldegiko kudeaketarentzat plegu berriak onartu zituzten. Kiroletako Batzordean gai hau aurkeztu zenean eztabaida sakona eman zen. Kasu honetan, Udal Gobernuak bakarrik geratu zen plegu berriak babesten. Oposizioko alderdi guztiok ez baikeuden ados proposaturikoa-rekin.

Kudeaketa berri honek udaletxearentzat, gainkarga ekonomiko bat suposatuko du. Krisi garaian gauden hontan, ez dugu uste momenturik egokiena denik aldaketa hauetarako.

Kudeaketaren kontua alde batera utziz, urriaren 7ko plenoan gure taldeak gogor salatu zuen Udal Gobernuak gai honen aurrean izandako jarrera. Guretzat kiroldegiko pleguen onarpena inposaketa bat izan da. Adibide bezala, Itxaropena jubilatutako etxeko tabernaren pleguak plenoan onartu ziren (11 zinegotziz osatua) kiroldegikoak ordea Gobernu Batzordean (5 zinegotziz osatua).

Zein da jarrera honen arrazoia? Gobernu batzordea Ezker Abertzaleak eta Eusko Alkartasunak osatzen dutela, ez beste inork.

Inposaketa esaten dugu, zeren eta gutxiengotik, gehiengoari beraien nahia inposatzen digute. Nortzuk eta legealdi hasieran herri partaidetza, adostasuna etab. bezalako hitz politikak erabiltzen zituztenek. Hitz polit ugari, baina hitz hutsak ikusi den bezala.

Lerro hauek idaztera behartuta ikusi gera, herriko hedabideek ez baitute gure taldeak udaletxeko plenoan egindako salaketaren berri eman. Zoritxarrez ez da berria.

### SORALUZKO EAJ/PNV UDAL TALDEA

### Roke Akizu Jaunari

Urriaren 21ean eta 23an Udaletxeko saio aretoan bi bilera egin ziren. Lehena baserrietan energia berrietzatuz ezartzeko azterketen emaitzen berri emateko izan zen. Bigarrena aldiz 2009ko Gaztañerre Azoka antolatze bileran.

Zein izan zen nire harridura! Nekazaritzako Batzorde buruak (*Roke Akizu*), ez zidala bilera hauen berri eman, eta ondorioz ez nintzen joan, hauen berri ez nuen eta.

Benetan onartezina iruditzen zait batzorde buruaren jarrera. Batzordeko kide izanda, nekazaritzarekin zerikusia duten bileren berri ez ematea, hau al da denen artean gauzak egiteko daukan ideia? Mila esker Roke, jarraitu horrela.

### IKER ALDAZABAL (Nekazaritzako Batzordeko kidea)

#### PIL-PILEAN EUSKARA ELKARTEKO HELBIDE ELEKTRONIKO BERRIAK:

Elkarteko kontuetaarako: **koordinazioa@pilpilean.com**  
Aldizkariko kontuetaarako: **aldizkaria@pilpilean.com**  
Publizitate kontuetaarako: **publizitatea@pilpilean.com**  
Euskara kontuetaarako: **euskara@pilpilean.com**  
Plaentzia.com-eko kontuetaarako:  
**plaentzia@pilpilean.com**

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# © pil-pilean

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1, PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04  
**e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** Arianne Unamuno, Egoitz Unamuno, Enara Agirre, Jon Basauri eta Aitor Madrid **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz  
**Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop.  
**Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563  
**Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



### EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZKO  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA



## bittartetik



Nerea Isasti

## Goebbels eta Egunkaria

Hitlerren Gobernuko propaganda ministroa izan zen Goebbels-ek asmatu zuen esara: *“askotan errepikatutako gezurra, egi bihurtzen da”*. Hori berori gertatu da Egunkariarekin. Goardia Zibileko kapitain batek itxi zuen Egunkaria 2003ko otsailaren 20an, Egunkariak ETA finantzatzen zuela argudiatuz. Egunkaria itxi, zazpi lagun atxilotu, beraien ondasunak bahitu...

Egunkariaren delitua: Euskal komunikabidegintza sustatzea. Del Olmo epaileak, sumarioa amaitu ondoren zera onartu zuen: *“ezin da akreditatu Egunkariak ETA finantzatzen zuela”*. Baina, hala ere, aurrera jarraitu zuen kasua artxibatu beharrean eta epaiketa gainean dago.

Sumarioan argigeratuta Egunkaria ez dela ETA-ren finantzaketa instrumentua, ez duela ETA babesten eta ez duela indarkeria sustatzen. ¿Orduan zertarako pantomima guzti hau?

Erdi aroan Inkisizioak emakume bat sutan erretzeko nahikoak zen emakume bat eskuz seinaltatzea eta “sorgin bat da” oihu egitea. Dignidad y Justicia taldearentzat euskeraz hitz egitea, zurrerrenik, deabruaren gauza da.

**Egunkaria libre!  
Epaiketarik ez!**

## ((ENTZUTEKUAK))

## Memoria Historikoa berreskuratzeko taldea

## Zela sortu da taldia?

Udaletxiak taldea sortzeko deialdixa egin zeban uda aurretik eta guk, lelengo bileria egin genduan urriaren 5ian. Danera hiru bilera egin ditugu orain arte. Lelenguan, Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kide dan Juan Ramon Garai etorri zan, gu baino lehenago memoria historikua berreskuratu daberen herrixen esperientziak gurekin partekatzera.

## Zein da taldian helburua?

1936ko Gerra Zibilian Soraluze eta soraluzetarrei gertatutakua ikertu eta berreskuratzea nahi dogu. Gertatu zan guztian inguruko ahalik eta argibide gehixen emotia. Egixa esateko motibaziño diferentia daukan jentia batu da taldian baina adostu dogu zer egin. Gertakizunak jaso eta historia bere osotasunian kontatzea.

## Zegaittik nahi dozue historia kontatzea?

73 urte pasatu dira Gerra Zibila amaittu zanetik eta bada ordua jakiteko zer gertatu zan gerran eta gerra osteko diktaduraren urtietan. Oin arte ez da posible izan. Gaur egun bizirik daren lekukua gutxi dira eta darenak nahiko nagusixak. Adinekuen testigantzak jasotzia ezinbestekua da egixa ezagutzeko.

Lan gogorra emoten dau.  
Zela antolatuko zarie?

Lan zaila da. Ez da erreza izango baina lanerako gogotsu gare. Taldian perfil askotako jentia dago. Batzuk historialarixak dira eta beste batzuk senideren bat



preso euki edo galdu zebenak. Momentuz, bi azpitalde sortu ditugu. Talde batek elkarrizketak egingo ditu eta beste taldiak artxibo eta dokumentuak aztertuko ditu. Garai hartako argazkixak batzia be oso garrantzitsua izango da. Herrixan daren aztarnak topatu eta inbentarixo bat egitia da beste lan bat. Mendi gaineko trintxeren zuluak eta sinbolo frankista batzuk oindio be bistan dira esaterako. Badago bai zer egin!

## Zertan lagundu leike laguntzeko gogua daukanak?

Gure lan-taldian parte hartzeko atiak zabalik dare nahi dabendako. Parte hartzeko modu asko dare; taldeko bileretara etorritta, datuak jakinarazitta, argazkixak emonda... Daguaneke argazki batzuk eta dokumentu batzuk eskuratu ditugu. Martitzenero 19:00etan Udaletxian egitten dogun bilerara etorri edo taldekideren bategana jo leike laguntzia nahi daberenak. ☺

Bittor Trebiño,  
Juan Ramon Garai,  
Angel Catalán,  
Tere Guenetxea,  
Egoitz Unamuno,  
Leire Ginea,  
Ana Rosa Maiztegi,  
Maite Larrañaga  
eta Jon Iñarra.

**Gertakizunak  
jaso eta historia  
bere osotasunian  
kontatzea da  
adostu  
doguna**



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

**Errekalde 21  
20590 SORALUZE**

T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

**HÑOS. BENITO  
ANAIK**




Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuesto konpromisorik gabe


T. eta F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# Zirkulazioaren norabide aldaketak eguenetik aurrera

Udalak helarazitako mapa, norabide berriak zehaztuta.

Udalak datorren egunean, goizeko 10:00etatik aurrera herriko zirkulazioaren norabideak aldatuko dituela jakinarazi du. Modu honetan, saihebidetako berriak norabide bakarra izango du, Eibar-Bergara norabidea. Baltegieta, Errabal eta Errekaldeko norabidea berriz Bergara-Eibar

aldekora izango da. Etxaburueta kaleko eta Estaziño kaleko bidegurutzeen artean bi noranzkoak mantenduko dira eta Udaletxetik Ezozibideko biribilgunerakogaur egungo noranzkoa aldatu egingo da (baita Gabolatseko zubikoa ere). Neurri honekin, saihebidetan 150 aparkaleku berri sortuko direla jakinarazi du eta horrela herrian aparkalekuekin dagoen arazoa konpontzeko "pauso garrantzitsua" emango dela. Oposizioko alderdiek euren ezadostasuna adierazi zuten orain hila-bete batzuk. 



\* Informazio gehiago Udaltzaingoa.

## Misio taldeak Haitiko umeen aldeko postua ipiniko du



Gaztañerre azokara begira, misio taldeak etxean egindako gozokiez gain, tonbola antolatuta du lehenengoz. Etxean egindako jantziekin apaindutako 50 panpina zozketatuko dituzte. Kontzejupeko obrak direla eta Santa Ana Kirolak zegoen dendan jarriko dute aurten postua. Bildutako dirua Haitiko Jacmelgo haurrentzako nutrizio zentzura bideratuko dute.

## Udala herriko auzoekin bilduko da beraien premiak jakiteko

Udal gobernu taldeak hainbat bilera egingo ditu herriko auzo bakoitzeko bizilagunekin tokian tokiko gabeziak eta udal zerbitzuen akatsak zuzendu eta premiak eta beharrak identifikatzeko.

## Bilerak arratsaldeko 19:00etan izango dira.

Arazoko lehenengo hamabostaldiko bilerak:

Azaroak 3 Sagarrerreka

Azaroak 5 Ezozibidea

Azaroak 9 Gabolats

Azaroak 11

Kalebarren – Santa Ana – Olea

## Lau atxilotu ustez Soraluze enpresa batean lapurtzeagatik

Hilaren 23ko goizaldeko 4:30etan Ertzaintzak A-8 autopistatik N-634 errepedierantz, Galdakaorantz zihon furgoneta bat atzeman du eta bertan zihozen lau lagunak atxilotu ditu, ustez Soraluze enpresa batean egindako lapurreta leporatuta. Enpresaren izena ez dute argitaratu.

## Zortzi soraluzetari omenaldia odol-emaleen batzarrean

Iragan domekan Elgetan ospatu zen batzarrean, debabarreneko odol emaleak omenduak izan ziren eta tartean zortzi soraluzetar: Elias de Castro, Santiago Dominguez, Itziar Gantxegi, Tomas Ramos, Josefina Tesouro, Rosa Zubizarreta, Mercedes Miguelz eta Itziar Ezenarro.





## SAN ANDRES

### ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea    T. 943 75 16 46



## MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99

**SORALUZE**



**KZguneko azaroko ordutegia**

Azaroa bitartean, Soraluzeke KZgunek hilaren 5ean, 12an, 19an eta 26an irekiko dituzte ateak arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Gogoratu, beste hainbat gauzen artean, ONA txartela eskatu daitekeela bertan. Horretarako NAN eta Osakidetzako osasun txartelak aurkeztu behar dira. Hainbat ikastaro ere eskainiko dituzte. Informazio gehiago, **943 75 30 45** telefonoan edo **tutor.soraluze@kzgunea.net** helbidera mezu bat bidali.

**Azaroaren 7an  
Ikasle Eguna Arrasaten**

IAK antolatuta, "Badator Ikasle Eguna" lemapean, Ikasle Eguna egingo da Arrasaten azaroaren 7an. Antolatzaileek Soraluzeke ikasle eta gazteak gonbidatu nahi dituzte bertara. Kontzertuetarako sarrerak Arrano tabernan daude salgai, 15 eurora. Herri bazkarrirako sarrerak 7 euro balio du.

**Kontzertuak:**

**DESKONTROL  
KOP  
ESNE BELTZA  
ZEA MAYS  
BESTE BAT  
RADIO AFU  
ARITZ SOUND SYSTEM**

**Ikas-bidairako postua  
Gaztañerretan**

DBHko laugarren mailako ikasleek, ikas-bidaia dela eta postua jarriko dute Gaztañerreko azokan. Bertan, sagardoa, ura, ardoa, tortila pintxoak eta txistorra pintxoak salduko dituzte besteak beste. Salmenta bakoitzeko, errifa bat banatuko da eta amaieran bizikleta bat zozketatuko dute.

# Herriko zazpi baserritan energia berriztagarriak ezartzeko emaitzak aurkeztu dira



Urriaren 21ean Soraluzeke landa-guneetan energia berriztagarriak sustatzeko ekimenaren emaitzak aurkeztu ziren. Soraluzeke Udaletxeak Agenda 21ean jasotzen diren konpromisoak betetzeko asmoz bultzatu dute. Helburua, landa-guneetako biztanleriari erabakiak errazago hartzeko erreminta bat aurkeztea da, hain zuzen, Soraluzeke landa-guneetako etxebizitzetan eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien instalakuntzak burutzeko aukerak aztertzen dituen ikerketa bat eman zaie.

**Instalazio fotoboltaikoak eta biomasadun galdarak**

Ekimen pilotu honetan Soraluzeke zazpi baserri hartu dute parte eta jarduerak planteatzeko orduan, ingurumen eta ekonomia

irizpideak kontuan hartu dira. Hilaren 21ean emaitzak aurkezteaz gain ondorio nagusi batzuk aurreratu zituzten. Lehenik eta behin, energia sortzeko instalazio fotoboltaikoak egiteko aukera nabarmendu zen. Bestalde, propanozko edo gasoliozko galdarak biomasadun galdarengatik aldatzeko aukera aurreikusi zuten. Biomasa landare edo animalia jatorria duen osagaiez osatuta dago. Besteak beste, egurra, zuhaixkak, basoko eta nekazaritzako hondakinak, inausketako hondakinez eta egurraren industriak sorturiko azpiproduktuez osatuta dago. Datorren urtean, beste hamar baserri eskainiko zaie energia berriztagarriak ezartzeko proposamena. ☞

Hilaren 21ean egindako aurkezpena.

**GILA TABERNA**  
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK  
**GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK**  
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

**Etxabe Harategia**  
Euskal txabalkia Bildotsa  
Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak  
T. 943 75 2375

## 46 Plazentziatar Euskara ikasten

**A**urtengo ikasturtean ondoak baino euskara ikasle gehiago da herrian. Guztira 46 plazentziatarrek eman dute izena Soraluzeko euskaltegian eta HHIIn. Euskaltegiko arduradunek aitortu digutenez, aspaldiko matrikulazio daturik altuenak dira eta "bereziki harrituta" eta "pozik" daude Soraluzen matrikulatu den jende kopuruarekin. Adin eta perfil guztietako jendea dago gainera. Jende nagusia, gaztea, bertakoak, etorkinak, ezer ez dakitenak, EGA atera nahi dutenak... Denak Euskara ikasten!



**AEKko ikasleak (Goizeko taldea)**



**AEKko ikasleak (Bazkalosteko taldea)**



**AEKko ikasleak (Arratsaldeko taldea)**



**HHIko ikasleak (Arratsaldeko taldea)**

### GAZTEÑERRE EGUNEAN AFARIA

Benetan txalotzekoa da egiten diharduten ahalegina! Orain euskaldunoi dagokigu zuei behar bezalako laguntza ematea euskaraz eginez. Hurrengo zita, azaroaren 16an izango da, Gaztañerre Egunean. Euskara ikasle eta euskaldun zaharrok afaria egingo dugu Ibai-Eder elkartearen. Gaztaina erreak jan eta kantuan egingo dugu urtero moduan. Denok zaudete gonbidatuta.

## Bejondeizuela!!



Zulotik  
begira

## ARAZTEGIA

Urriaren 16an, lehenengo mailako ikasleak Azpeitiko Ibai Eder araztegiara joan ginen. Lehenengo, ur zikina edangarri zelan bihurtzen zuten ikusi genuen. Kontrol gelara sartu ondoren, ibilbidea erakutsi zigun Edurnek, araztegioko langileak. Araztegioko kontrol gelan ordenagailuak eta horrelakoak zeuden araztegia kontrolatzeko. Araztegiaren ur makina batek sortutako energia erabiltzen zuten. Bigarren fasean urari ozonoa botatzen zioten, guretzat kaltegarria den gasa. Errak-tiboak nahasten zituzten eta ondoren ura dekantagailuetara joaten zen. Ostean, ozonoa botatzen zioten berriro eta gero filtratu egiten zuten, zikinkeria aretan geratzen zela ikusi genuen. Bukaeran ura deposituetara eramaten zuten eta kloro pixka bat botatzen zioten.

Hemendik irten ostean Badiolegi ur zikinen araztegiara joan ginen. Bertan zikinkeria handia ikusi genuen eta oso usain txarra zegoen. Lehenengo plastikoak metalezko barra batzuen artean geratzen ziren, gero bueltak ematen zituen torloju moduko batzuetatik



igotzen ziren eta azkenik, orraziak ematen zuten makina batzuk, zikinkeria batu eta zinta batean zapaldu ondoren, hodi batetik edukiontzi batera eramaten zuten. Gero, olioak eta lokatza ikusi genituen. Olioak gainean geratzen zen eta lokatza azpian. Uretan oxigenoa sartzen zuten eta bakterioek zikinkeria jaten zuten. Dekantagailuetara joaten zen eta hodi batetik beste dekantagailu batera. Han ura guztiz garbitzen zuten. Azkenik, ura errekarara doa!







# Gaztañerre, baserritik geroz eta gertuago

Kolore bizi eta alaiak alde batera laga eta laranja eta gorri jantzi ditu udazkenak gure inguruak. Udazkenarekin batera ospakizun bereziak datozela ohartarazten digute bazterretan jausi diren arantzadun oskolek: Gaztañerre Eguna ate joka dugula, horixe.

**A**ntzinatik datorren ospakizun euskalduna da Gaztañerre Eguna. Animien egunetik, azaroaren 2tik, kontatzen hasita bigarren astelehenean ospatzen da eta ohiturak dioenaren arabera, hildakoak omentzeko jaia hau. Gure aurretikoek etxeko sutondoan batu eta goxo-goxo zeudela hildako senideak oroitzen zituzten gaztainak eta marraskiloak janez. Zergatik gaztainak eta marraskiloak? Udazkeneko ohiko jakiak direlako. Erraz topatu daitezke zuhaitzetik erori berri diren fruituak, baita euritara agertzen diren animalioak ere. Elikagai merke eta ugaria gure bazterretan. Gaur egun baina, beste zentzu bat hartu du Gaztañerrek eta hildakoak omentzea baino, baserri mundua eta kalea hurreratzeko helburuarekin ospatzen da. Aurten, azaroaren 14ean XIV. artisau eta baserritar azoka egingo da eta bertan herriko baserritar eta artisauak beraien produktuak erakutsiko dituzte.

## Baserritar gazteen topalekua

Gaztañerre Egunaren aitzakian, Azoka ez ezik egitarau zabala antolatu dute. Herrian baserriak duen egoeraz jarduteko eta baserritar edo baserrizale gazteek elkarren berri izateko topaketa antolatu dute. Pixkaka nekazaritzari etorkizuna argitzeko eta baserritar gazteen arteko elkarlanak habian ipintzeko batuko dira. Nekazaritza ekologikoaz, produktuak merkatu-

**“Hildakoak omentzeko jaia zen Gaztañerre”**



**“Azaroaren 14an, XIV. artisau eta baserritar azoka egingo da”**



**“Baserrizale gazteek elkarren berri izateko topaketa antolatu dute”**

ratzeko eta gizarteratzeko moduez eta proiektu berriak hasteko oztopo eta aukeraz hausnartzeko aukera izango dute azaroaren 7an, zapatuan, San Andresen batuko direnek.

## Buruko zapia ipintzen eta taloak egiten ikasi

Azaroaren 11n Ane Albisu Ikerfolkeko kideak hitzaldia emango du “Gure jantziak azken 100 urteotan: zer, noiz eta nola jantzi?” izenburupean eta bertan euskal jantziak dituen elementu guztien azalpen praktikoa emango du. Buruko zapia zela ipini daitekeen ere azalduko du. Bertaratuko direnei zapia eta abarrik eramateko gonbitea luzatzen die Anek.

Sasoi batean gure herrian hainbestetan jaten ziren taloak egiten ikasteko aukera ere izango da azaroaren 12an. Horretan esperientzia handia duten AEKko kideek jardungo dute erakusten. Parte hartzeko Pil-pileanekin harremanetan jarri behar da.

## Egitaraua borobiltzeko, Gaztetxean bideo emanaldiak izango dira astean zehar; nekazaritzari lotutako dokumentalak eskainiko dituzte.

Gaztañerre Egunean bada lagunarteko afaria egiteko ohitura duenik. Euskaraz ikasten dihardutenek Pil-pilean elkartekoekin izango dute kantu-afaria. Zaharren Egoitzan ere ospakizuna izango da aurten.



## JESUSA MAIZTEGI GALLASTEGI

### Ardiaren iletik galtza beroak

Ez da izango Gaztañerre Azokan baina makinatxo bat periatan ibilitakoa da Iturbe-barriko Jesusa Maiztegi artilezko galtzak eta etxeko produktuak saltzen. 81 urte ditu, eta artilearekin haria egiten orduak eta orduak egindakoa da.



#### Noiz hasi zinan harixa egitten?

22 urtekin Iturbe-barrira ezkondu nintzan. Gure etxian ez zeguan hari-xa egitteko ohitturarik, baina gizonan amak egitten eban eta nik be ikasi neban. Harek makiniakin ez, eskuan egitten eban, txabilia kolkuan sartuta.

#### Ilia zeuk ebaten zontsen ardixeri?

Ez, nere gizonak zaintzen zittuan ardixak eta ilia ebaten be berak jarduten eban. Eskuz mozten zontsen eta gerora makinia ekarri genduan.

#### Eta gero zer?

Ardixeri ilia ebagi ostian, ilerik one-nak apartau, ur hotzetan ipini beratzen eta gero azkan bertan garbitzen ginuan, jaboirik eta ezer erabili bare. Eguzkitan sikatu ostian, eskuz harrotu bihar izeten da. Artilia onabadasegiduankardatzenda. Kardatueta gero, harixa egitteko makiniakin aldiko pixkat egitten neban neguan.

#### Harixa saldu be egitten zenduan?

Bai. Artilia saldu egitten neban eta nik egindako galtzak be bai. Eibarrera eruaten nittuan galtzak, Elorrio dendara, han saldu zeixezen.

#### Zertuk egitten zenduzen harixakin?

Beste batzuk gauza asko egitten zittuen baina nik galtzia eta galtzia. Lehen abarkia erabiltzen zan eta harendako bihar izeten zian.

#### Gaztaia be egingo zenduen ba.

Bai, egin eta saldu! Jesus... zenbat lekutara. Eibarko plazan postua euki genduan eta han gaztaia, esnia, maiukixak eta danetik saltzen genduan. Elgoibarrera be juaten nintzan domeka goizetan eta

*“Pausuan  
konpasian  
eskua  
eruatia  
da zailena”*




*“Nik galtzia  
eta galtzia  
egitten  
neban”*

ilaria eukitzen neban nik, gaur ez dago holakorik! Zumarragatik be urtietan etorri izan jakuz etxera gaztaitara, pentsau!

#### Lan zaila da harixa egittia?

Zaila ez baina ikasi egin bihar. Harixa egin biha da pausuan konpasian eskua eruanda, eta horixe izeten da zailena. Behin ikasittakuan, bizi osorako gertzen da.

#### Gaiz aldatuta, Gaztañerre Eguna ospatzen zenduen?

Gaur egun izaten dan eguna bera ez, baina sasoa zanian afaltzeko gaztaina egosixak eta esnia izaten zian, ez oingo moduko aukerarik. Beste batzuetan, sasoa genkanian, lagun kuadrillia batu Ezozin eta gaztañerre jana askotan! 

## EGITARUA

Azaroak 7: Herriko baserritar gazteen topaketa, San Andresen, 10:30ean hasita.

Azaroak 11: Ane Albisuren hitzaldia, “Gure jantziak azken 100 urteotan: zer, noiz eta nola jantzi?”, kiroldegiko erakusketa gelan, 19:00etan.

Azaroak 12: Talo ikastaroa, Ibai-Eder elkartean, 19:00etan.

Azaroak 14: XIV. Gaztañerre Azoka.

Azaroak 16: Gaztañerre Eguna.





## Aurten, hirugarren mailakoon irteeria ezagutu ere egiten ez genuen paraje batera izan da: Lasturrera.



**E**z genuen pentsatzen etxetik hain gertu horrelako toki polit eta baketsua geneukan. Gainera, bertan, gauza desberdin asko egin eta ikasteko aukera paregabea izan dugu.

Astelehen goizean heldu eta asentatu ondoren jarduera desberdinei ekin genien:

Goikola baserrian gazta nola egiten duten ikusteko aukera izan genuen. Oso gazta ona egiten dute, "Idiazabal" delakoa.

Uraren tailerra ere egin genuen eta benetan interesgarria izan zen ingurua nola kutsatzen den guk geuk ikertu eta aztertzea. Benetan izan zen polita.

Landareen azterketatxo bat ere egin genuen eta hauei buruz ere, beste zertxobait ikasita etorri ginen.

Gauean, ilun-ilun zegoenean, linternak hartu eta gautxorien soinu desberdinak entzutera abiatu ginen, a zelako beldurra pasa zuten batzuk!

Talo goxo-goxoa ere guk egin eta hamarretakoan jateko aukera izan genuen. Baina hau egin ahal izateko, hemen dagoen errotan artoa irin bihurtu genuen.




Batzuk bolo eta pilotan jarduten zuten bitartean, beste batzuk, ehunak egiten ikasi genuen eta gauza politak egin genituen.

Begira ezazue zenbat gauza egin eta ikasi ditugun pare bat egunean. Benetan ondo pasatu dugu. Ah! Gauzatxo bat jakin ezazue: larunbat arratsaldetan, bertako zezen plazan, zezenak ateratzen dituztela eta demaseko giroa egoten omen da. Animatu eta etxekoekin etor zaitezte!





txiki



## Basarrixan biziko zinake?

### Zer da gehixen gustatzen jatzuna?

Anton Akizu, 6 urte



Ni Artega basarrixan bizi naiz eta asko gustatzen jata. Animalixak daukaguz eta asko gainera! 3 asto, perikito bat, eta txakurra. Oin ortua gertatzen gabiz eta beste asto bat be ekarriko dogu.

Goizane Plata, 6 urte



Iraola-Etxeberri basarrixan bizi naiz eta animalixekin jolastia asko gustatzen jata. Gainera, jostailuekin jolasteko leku asko daukagu! Guk, behixak, ardiak, oilarra, untixak, katuak eta indioilarra daukaguz.

Ni kalia bizi naiz eta baserrixa gustatzen jatan arren, nahixago dot kalia bizitzia. Ibiltzia ez jata asko gustatzen eta basarrixan bizi ezker, asko ibili bihar da! Bestela, baserritik, txakurrak eukitzia da gehixen gustatzen jatana.

Markel Oregi, 6 urte



Bai, ni Arteaga basarrixan bizi naiz eta kalia bizitzia baino nahixago dot basarrixan bizitzia. Bertan kalia ez daren animalixak daukaguz eta leku asko daukagu jolasteko. Gainera, kalia dagan zaratia ez daukagu basarrixan.

Ezoz Akizu, 6 urte



## TXISTEA

### Bi monja

Bi monja doaz motorrean eta inork pasatzea lortzen ez duen kurba arriskutsua garbi-garbi, zast, pasatzen dute. Beste aldean ertzainak daude eta esan diete:

— Nola lortu duzue kurba hori pasatzea?

Eta monja batek:

— Jesus gurekin dago eta.

— Beno ba, orduan multa motorrean hiru joateagatik. 🐣




# ZER TRISTEN DOTSAZU?

Arane kiroldegixak kudeaketa barrixa izango dau. Oin arte barne kudeaketian arduria enpresa pribatu baten eskuetan egon da. Hemendik gutxira, udal gobernuan proposamenen arabera, udaleko kirol teknikarixa arduratuko da bertako kudeaketiaz. Udalak, kiroldegiko zerbitzuen zeharkako kudeaketa esleitzeko deialdixa egin dau.

## Kiroldegixan kudeaketa publikua ala pribatua izan bihar da?

**JOKIN ETXANIZ**  
Komertziala




**A**lde batetik kiroldegixa enpresa pribatu baten eskuetan egotia ona dala ikusten dot, modu horretan, udalak kontratatutako enpresian kudeaketan muturra sartu leikelako. Baina publikua izatia zuzenagua da eta egixa esan, ez dakit zer dan hobia!

**JOSUNE CASARES**  
Sekzio arduraduna



**N**ik kiroldegiko kudeaketa publikua izatia nahixago dot. Udalan eskuetan egonda, herrixari gehixen ardura dotsazen kontuak landuko dittu eta!

**ENKARNA ARRIZABALAGA**  
Etxekoandria



**N**eretzat publikua izan biharko litzake bertako kudeaketa eta ganoraz egittia, noski! Udalak begirale lanak egittia ondo ikusten dot, guretzat hobe danaz arduratuko dira eta! Beraen gestinuz fidatzen naiz.

**JOXEAN IÑURRIETA**  
Funtzionarioa



**N**i ganorazkua eta garbixa dan kudeaketa baten alde nago, gestino garbixa eta kontuak klaru eruango dittuan alde. Gero denporiak esango dau zein dan hobia, baina hau kiroldegixan erabiltzailiak esan biharko dabe.

### KOMIKIXA



*Disainua eta Formena*

Polígono Amillaga, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaieta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434  
Jon Azkorebetia Txurrutxa  
K.Z. 20.000.752

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



**Arturo Andraderen eskulturak Oreka Art aretoan**  
Arturo Andrade (Allariz, 1956), artista polifazetikoaren eskulturak Oreka Art aretoan ikusi daitezke azaroaren 1era arte. Margolaria eta eskultorea izateaz gain, buztina lantzen eta luthergintzan ere aditua da. Munduko erakustareto entzutetsuenetan eduki ditu bere lanak ikusgai, besteak beste, Tokyoko Ginza Towa Gallery-n. Astelehenetik barixakura 18:30etik 20:30era; zapatu eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

### Gaztañerreko babajanerako txartelak salgai

Azaroaren 14ko Gaztañerre azoka eguneko babajanerako txartelak salgai daude. Menuan, babak sakramentuekin, edana, postrea eta kafea sartzen dira. Azaroaren 9a baino lehen erosten duenak 8 euro ordainduko ditu, ondoren 10 euro. Umeek 5 euro. Iratxo goxodenda, Gila, Arrano eta Gaztelupe tabernetean eta Pil-pileanen eskuratu daitezke.

### Itxaropenak Extremadurara irteera egingo du

Itxaropena jubilatuen elkarteak Extremadurara irteera egingo du azaroaren 8an. Guztira zazpi egun egongo dira bertan eta besteak beste, Guadalupe, Caceres, Trujillo, Yusteko monasterioa, Merida eta Plasencia ikusiko dituzte. Prezioa 325 euroko da, kostu guztiak barne. Izena emateko, Itxaropena elkarte-ko batzordera jo behar da.

# Herri dantzak ikasteko eskolak izango dira ekainera bitartean

**K**alejira batekin zabalduko dute berria herrian dantza taldekoek gaur iluntzeko 7etan. Azaroan hasi eta ekainera bitartean dantza ikastaroak eskainiko ditu Urrats Dantza Taldeak. Plaza dantzak erakutsiko dituzte, azken urte bietako bideari jarraituta. *“Ikasteko eta dantzarako gogoz daudenak asko dira herrian eta dantzaz gozatzeko aukera eman nahi diegu guztiei, dantzan ezer gutxi dakien horri ere bai”*, diote antolatzaileek.

### Polkak, jotak eta gehiago

Euskal Herriko erromeria eta jaietan gehien dantzaten direnak ikasteko aukera izango da ikastarootan; fandagoa eta arin-arina (*hasiberrientzat eta hobetu nahi dutenentzat*), Ipar Euskal Herritik zabalduz datozen polkak, Nafarroako jotak, zortzi-koa eta beste asko. Astean ordu eta erdiko saioa egingo dute; ordutegiak parte hartuko dutenen arabera ipiniko dituzte. Izena eman nahi dutenek [urratsdantza@gmail.com](mailto:urratsdantza@gmail.com)-era idatz dezakete, **943 75 13 04** zenbakira deitu edo dantza taldeko kideren batengana jo.

### Umeen dantza eskolak barixakuetan

Barixaku arratsaldeetan izango dira ume eta gaztetxoentzako dantza eskolak. Ordutegia honakoa izango da:

<b>16:45 – 17:15:</b>
6-7 urteko hasiberriak
<b>17:15 – 18:00:</b>
8-9 urteko neskek
<b>18:00 – 18:45:</b>
10 urtetik gorako neskek
<b>18:45 – 19:30:</b>
8 urtetik aurrerako mutilak



2009ko Erromerixa Eguna.



**GAZTELUPE**  
taberna  
tel: 943 75 20 81

**ARRANO**  
tabernia  
etorri eta gozatu  
giro euskalduna eta sanua

**etxera**

**MABE**  
ILEAPAINDEGIA

**ESTETIKA**  
**SOLARIUM**

Errabal kalea 1, behea  
Tel.: 943 75 14 89  
20590 SORALUZE

**Kontulan**  
**Aholkularitza S.L.**

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.  
Tifonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze  
GIPUZKOA

# Joseba Garciak ezin izan zuen Urrakira igoeran konpetitu



Iturria: Nerea Isasti

Hilaren 25ean automobilismoko Euskadiko Mendi Txapelketa egin zuten Urrakin. Bertan parte hartu behar zuen Joseba Garcia gidari soraluzetarrak. Urrakikoa txapelketako azken proba izan zen eta tamalez, arazo mekaniko batek ez zion lasterketa hasten laga Garciari. Iñigo Martinez izan zen igoeraren irabazlea. Euskadiko Mendi Txapelketaren irabazlea Aitor Zabaleta izan da eta Joseba Garciak bederatzigarren amaitu du.



## Herriko atletak Donostian, Hondarribin eta Katalunian

Guztira 2.847 lagun batu ziren urriaren 18an Donostiako 15 kilometroko lasterketaren XII. edizioan parte hartzeko. Iñaki Ruiz soraluzetarrak lehiatu zuen bertan eta 00:56:39ko denbora behar izan zuen helmugara iristeko.

### Andoni Calles eta Iñaki Ruiz Katalunian

Urriaren 24an egin zen Trail Serra de Montsant lasterketa Cor-

nudella de Montsant herri katalanean. 32 kilometroko lasterketan Iñaki Ruizek eta Andoni Callesek hamargarren eta hamaikagarren postuak lortu zituzten hurrenez hurren. Iñaki 3:54:33ko denboran iritsi zen helmugara eta Andonik 3:54:35tan egin zuen ibilbide osoa.

### Mendi taldekoen bazkide eguna

Urriaren 25ean mendi taldeak aurtengo azken mendi irteera egin zuen. Bazkide egunak ehun pertsona inguru bildu zituen. Txurrukatik mendi itzulia egin ondoren, San Andres auzoan babajana egin zuten. Bazkal aurretik, bazkide gazteenei opariak banatu zitzaizkien.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Eibartarrak - Sora (Erreg.)	1 - 2
Sora (kad) - Mutriku txiki	5 - 0
Urola - Sora (Jub)	1 - 1
Sora (Erreg) - Anaitasuna	0 - 3
Anaitasuna - Sora (Kad)	8 - 2
Sora (Jub) - Amaika bat	2 - 10

### PELOTA

Del Rey - Goñi III	22
Olazabal - Laskurain	19

## AGENDA

### FUTBOLA

**Zapateria 31 18:30etan Mintxetan**  
Elgoibar - Sora (Erreg.)

**Zapateria 31 11:00etan Estala**  
Sora (Kad.) - Lagun Onak

**Domeka 1 15:30ean Unben**  
Urki - Sora (Jub.)

### Antxintxika Krosa

Zapateria 31, arratsaldeko 17:00etan Plaza Zaharretik

### Karakatera igoera

Morkaiko Mendi Elkarateak Karakatera igoera antolatu du.

Irteera goizko 11:00etan, izen-ematea doakoa.

Ibilbidea ez da markaturik egongo.

**Belarrak**  
**Loradenda**  
eta  
**belardenda**

T. 943 75 30 11



Merkatu Plaza  
20590 Soraluze

943 75 24 40

eguneroko arraina eta konjelatuak

**Juan Mari arraindegia**





## ZORION AGURRAK



**Zorionak Ximun!**  
Muxu handi eta bero bat etxeko guztion partez!



**Mirari Perez Unamuno**  
Urriaren 30ean 10 urte!  
Zorionak etxekoan partez,  
bereziki Aimarren partez!



**Nerea Martin Arizaga**  
Azaroaren 9an 13 urte!  
Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez!



**Zorionak Oier!!**  
Urriaren 22xan, 18 urte egin dozuz!  
Wii eta abarrak albo batera laga eta juerga edar batekin ospatu!  
Txokolatezko muxu haundi bat etxekuen partez!



1959an jaiotakoen bazkaria giro ederrean ospatu zuten euren 50. urtebetetzea. Plaza Barria jendetza bildu zen zapatuan. Talde argazkia atera ostean txurrukara igo ziren bazkaltzera.



**Josu eta Alberto**  
Irailaren 21ean eta urriaren 26an urteak betetzen dituzuelako!  
Muxu handi bat etxeko guztion partez!



**Zorionak Joni!!**  
Urriaren 29an urtiak betetzen ditzuzulako...  
Muxu erraldoi bat zure lagunen partez!!

## hildakoak

NESTOR ALBERDI EGAÑA  
MARI LUZ BADIOLA ALBERDI  
JESUS MARI JAUREGI GABILONDO



## LEHTAKETA

► **Zein ageri da argazki honetan?**



► **Saria:**  
Txurrukan aurrez gertatutako janarixetan gastatzeko 30 €

## AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea: Roberto Retolaza**

► **Magdalena Lopez,**  
Gila tabernako langilea da pasa dan aleko argazkixan agertzen zan soraluzetarra.



# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: M. A. Txurruka

## MERZEDARIEN IKASTETXEKO AZKENENGO IKASLIAK

**A**rgazki hau 1972 urtekua da eta bertan agertzen diran neska-mutikuak Merzedarietako ikastetxian egon ziran azkenengo ikasliak dira. Gaur egunian Errabal kalia daguan parkian etarata dago argazkixa. Ikasliak eurak eskolan eskuz egindako mozorrukin agertzen dira erretratu honetan, Sor Nieves Lengaran irakasliak gidatutako gelakidiak danak. ☘

### Irakaslia:

Sor Nieves Lengaran

### Behian:

Arrate Txurruka, Arantza Txurruka, Mertxe Galarraga, Charo Aristi, Idoia Aldazabal, Gemma Ansola, Magdalena Lopez, Charo Matias, Izaskun Alberdi.

### Goian:

Cecilia Astiazaran, Felipe Oregui, Alberto Alberdi, Jose Ramon Perez †, Jose Fernando Garate, Ramon Elizgaray, Alberto Goenaga, Rafa Gallastegi, Agustin Dueñas, Juan Mari Arizaga, Guillermo Galarraga, Antxon Uriarte †, Alberto Bengoa, Carlos Puga, Jose Ignacio Nuñez, Ana Gallastegi, Mari Carmen Pocela.



### MARIA ANJELES ELIZBURU LARREATEGI "MARIAN"

URRIAREN 17AN HIL ZEN, 56 URTE ZITUELA.  
GOIAN BEGO.

ETXEKOOK BIHOTZEZ ESKERTU NAHI DIZUEGU  
EGUN HAUTAN GURE DOLUAN LAGUNTZA ETA  
ELKARTASUNA EMAN DIGUZUEN GUZTIORI.

Zu joan izanak ez du gu zutaz ahaztu garenik esan nahi. Gaizki egon arren, barre egin eta poza ekartzen zenuen gure artean. Jaio nintzenetik zurekin ondo konpondu naiz eta ez nuen inoiz bukatzerik nahi baina horrelakoa da bizitza eta ezin dugu ezer egin... Eskerrik asko izeko benetan! Maitte zaittut!

Aitor



### PACO UCIN ARTOLAZABAL

I. URTEURRENA

2008KO URRIAREN 15EAN JOAN ZEN.

Urtebete pasa den arren gogoan ditugu oraindik, zure umorea eta irribarrea.



# Egunkaria libre!

munduan libre  
bizi ahal izateko  
**Egunkaria**  
libre munduan  
bizi ahal izateko

Azaroan Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uria, Xabier Oleaga, Txema Azurmendi eta Martxelo Otamendi epaituak izango dira. Bost akusatuek hamabi urtetik hamalau urte bitarteko espetxe zigor eskaerei egin beharko diete aurre.



## ZAKU BEREAN *(doinua: Habanera)*

Zakua uler dezake bakoitzak bere gisara gure hau emana dugu euskal nahiz herrigintzara. Epaketaren atetan aurkitu gintezke iada... izenak hamabi dira, baina epaitu ilara.

Gu ere sar baikintezke akusatuen pilara ozen esango dizugu epailea, entzun hara: "Zaku hortan egotea delitua baldin bada... gu're gaizkile gaituzu zaku berekoak gara".

ANDONI EGAÑA

## Soraluzeko aditzen liburuxka salgai!



### NON?

- Iratxo goxodendan
- Pil-pilean euskara elkarteko egoitzan
- Udaletxean


### PREZIOA:

3 euro (Pil-pilean euskara elkarteko bazkideek doan jasoko dute)



**Gaztañerretan  
Pil-pilean  
euskara  
elkartearen  
postuan egongo  
dira salgai!**





# Soraluzeko Gaztañerre

azoka  
09

Azoka Eguna, azaroak 14

**Goizean zehar:** Baserritarren eta artisauen azoka, kale animazioa, dantzak, umeentzat jolasak...

**15:00etan:** Herri babajana eta kantu saioa karpan (txartelak Irtaxo, Arrano edota Gaztelupen salgai).

**19:00etan:** Erromeria Xero Xieterekin (tartean larrain dantza).

**Astean zehar**

**Azaroak 7, zapatua** Herriko baserritar gazteen topaketa  
San Andres elkarte, goizeko 10:30etan hasita.

**Azaroak 11, eguaztena** Hitzaldi praktikoa  
"Gure jantziak azken 100 urteotan.  
Zer, noiz eta nola jantzi?" Ane Albisuren eskutik.  
(buruko zapia ipintzeko azalpenak ere bai)  
19:00etan, Kiroldegiko erakusketa gelan.

**Azaroak 12, eguena** Talo ikastaroa  
19:00etan, Ibai-eder elkarte, AEEKoen eskutik.

